

## Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Deklarazioa. 1992



### SARRERA

Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia Rio de Janeiron BILDU DA 1992ko ekainaren 3tik 14ra.

Giza Inguruneari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren deklarazioa BERRETSI DU –1972ko ekainaren 16an onartua Stockholmen–, eta, horretan oinarritu nahian, estatuen, gizarteetako sektore garrantzitsuenen eta pertsonen arteko lankidetzamaila berriak sortuz munduko aliantza berria eta bidezkoa ezartzeko HELBURUAREKIN, guztion interesak errespetatzen dituzten eta munduko ingurumen- eta garapen-sistemaren osotasuna babesten duten nazioarteko hitzarmenak LORTZEKO, eta, aintzat hartuta Lurra, gure etxea, integrala dela eta hainbat behar dituela,

### HAU ALDARRIKATZEN DU:

#### 1. printzipioa

Gizakiak dira garapen iraunkorarekin lotutako kezken muina. Bizitza osasuntsu eta emankorra izateko eskubidea dute, naturarekin harmonian.

#### 2. printzipioa

Nazio Batuen Gutunaren eta nazioarteko zuzenbidearen printzipioen arabera, estatuak beren baliabideak aprobetxatzeko eskubide subiranoa dute –beren ingurumen- eta garapen-politikak erabiliz–, eta estatuaren eskumenean edo horren kontrolpean gauzatzen diren jarduerak beste estatuak edo estatuaren eskumenetik kanpo dauden eremuetako ingurumenean kalterik egin ez dezaten zaintzeko erantzukizuna.

#### 3. printzipioa

Garatzeko eskubidea egungo belaunaldien zein etorkizunekoekin garatzeko beharrei eta ingurumen-beharrei

bidezko eran erantzuteko moduan gauzatu behar da.

#### **4. printzipioa**

Garapen iraunkorra lortzeko, ingurumenaren babesak garapen-prozesuaren atal bat izan behar du, eta ezin izango da era isolatuan hartu.

#### **5. printzipioa**

Estatu eta pertsona guztiek pobrezia errotik kentzeko funtsezko eginkizunean parte hartu behar dute, garapen iraunkorraren nahitaezko baldintza gisa, bizi-mailen arteko desberdintasunak gutxitzeko eta munduko herri gehienen beharrei hobeto erantzuteko.

#### **6. printzipioa**

Garatzen ari diren herrialdeen egoera eta behar bereziek –batez ere, ingurumenaren ikuspegitik gutxien aurreratu dutenak eta ahulenak direnak– lehentasun berezia izan behar dute. Ingurumenari eta garapenari buruzko nazioarteko neurrietan ere herrialde guztien interesak eta beharrak hartu beharko lirateke kontuan.

#### **7. printzipioa**

Estatuek lankidetzan jardun behar dute Lurraren ekosistemaren osasuna eta osotasuna zaintzeko, babesteko eta indartzeko, betiere mundu osorako elkartasun-irizpidez. Munduko ingurumenaren degradazioa maila berean eragin ez dutenez, estatuak erantzukizun komunak baina bereziak dituzte. Herrialde garatuak onartzen dute garapen iraunkorra lortzeko nazioartean duten erantzukizuna, ikusita haien gizarteek munduko ingurumenean egiten duten presioa eta eskura dituzten teknologiak eta finantza-baliabideak.

#### **8. printzipioa**

Garapen iraunkorra eta pertsona guztientzako bizi-kalitate hobea lortzeko, estatuak iraunkorrak ez diren ekoizpen- eta kontsumo-sistemak murriztu eta ezabatu behar dituzte, eta politika demografiko egokiak bultzatu.

#### **9. printzipioa**

Garapen iraunkorra lortzeko gaitasun endogenoen sorrera indartzeko lankidetzan aritu beharko lukete estatuak. Zientziaren jakintza areagotu beharko lukete, zientziari eta teknologiari buruzko jakintzak elkarrekin trukatzu eta, halaber, teknologien –besteak beste, teknologia berrien eta berritzaileen– garapena, egokitzapena, hedapena eta transferentzia areagotuz.

## **10. printzipioa**

Ingurumen-kontuak lantzeko modurik egokiena da interesa duten herritar guztiek parte hartzea, bakoitzari dagokion mailan. Estatu-mailan, pertsona orok izan behar du erakunde publikoek ingurumenari buruz duten informazioa eskuratzeko eskubidea, baita komunitateetan arriskutsuak izan daitezkeen materialei eta jardueri buruzko informazioa ere. Bestalde, erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko aukera ere badute. Herritarrak sentikortzen eta parte har dezaten bultzatzen saiatu behar dute; horretarako, informazioa herritarren eskura utzi behar dute. Prozedura judizial eta administratiboek sarbide eraginkorra izatea bermatu behar da, besteak beste, kalteak ordaintzeko eta dagozkien helegiteak egiteko.

## **11. printzipioa**

Estatuek ingurumenari buruzko lege eraginkorrak atera behar dituzte. Ingurumen-arauetan eta ingurumenaren antolamenduari dagozkion helburuetan eta lehentasunetan, tokiko ingurumenaren eta garapenaren testuingurua islatu beharko litzateke. Baliteke herrialde batzuetan aplikatutako arauak egokiak ez izatea, eta beste herrialde batzuetan arrazoirik gabeko kostu soziala eta ekonomikoa eragitea, batez ere garatzen ari diren herrialdeetan.

## **12. printzipioa**

Estatuek nazioarteko sistema ekonomiko onuragarria eta irekia sustatzeko lankidetzan aritu behar dute, herrialde guztien hazkunde ekonomikoa eta garapen iraunkorra handiarazteko eta, hala, ingurumen-degradazioaren arazoei hobeto ekiteko. Ingurumenarekin lotutako helburuak dituzten merkataritza-politikako neurriek ez dute diskriminazio arbitrario edo ezin justifikatuzkorik adierazi behar, ezta nazioarteko merkataritzaren ezkutuko murrizketarik ere. Herrialde inportatzailearen eskumenetik kanpo gertatzen diren ingurumen-arazoak konpontzeko ez dira alde bakarreko neurriak hartu behar. Mugaz haraindiko edo munduko ingurumen-arazoak tratatzeko neurriek nazioarteko adostasuna izan behar dute oinarri, ahal den neurrian.

## **13. printzipioa**

Poluzioaren biktimei eta bestelako ingurumen-kalteei dagozkien erantzukizunei eta kalte-ordainei buruzko estatuko legeria garatu behar da estatuetan. Bestalde, estatuek libreki eta eraginkortasun handiagoz jardun behar dute lankidetzan, estatuek beren eskumenean egindako edo estatuen kontrolpean eta beren eskumenetik kanpo egindako jarduerak eragiten dituztenengatiko erantzukizun eta kalte-ordainei buruzko nazioarteko lege berriak egiteko.

## **14. printzipioa**

Ingurumenaren degradazio larria eragiten duten jarduera eta substantzia guztiak edo giza osasunarentzat kaltegarriak direnak beste estatu batean kokatzea eta transferitzea eragozteko eraginkortasunez jardun behar dute estatuek.

## **15. printzipioa**

Ingurumena babesteko helburuarekin, estatuek zuhurtasun-irizpidea zabaltasunez aplikatu beharko dute, beren gaitasunen arabera. Kalte larria edo konpondu ezinezkoa egiteko arriskua dagoenean, ziurtasun

zientifiko osoa ez edukitzea ez da erabili behar ingurumen-narriadura eragozteko kostu eraginkorreko neurriak hartzea atzeratzeko arrazoi gisa.

#### **16. printzipioa**

Estatuko gobernuek ingurumen-kostuak barneratu eta tresna ekonomikoak erabil daitezzen bultzatzen saiatu behar dute, kontuan hartuta poluitzen duenak, berez, bere gain hartu behar dituela poluzio-kostuak, interes publikoei jarraiki eta nazioarteko salerosketak eta inbertsioak desitxuratu gabe.

#### **17. printzipioa**

Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar da estatuko tresna gisa, ingurumenean eragin negatibo nabarmena izan dezaketen jarduera proposatu guztiei dagokienez, betiere estatuko agintaritzaren eskudunen erabakiaren mende badago.

#### **18. printzipioa**

Estatuek berehala jakinarazi behar dizkiete beste estatuei hondamen naturalak edo eragin kaltegarriak izan ditzaketen larrialdiko bestelako egoerak.

#### **19. printzipioa**

Estatuek informazio egokia eman behar diete eta, aurrez, nahikoa denborarekin, jakinarazi behar diete mugaz gaindiko ingurumen-arazo larriak eragin ditzaketen jardueren ondorioak jasan ditzaketen estatuei; halaber, berehala eta fede onez kontsultak egin behar dituzte estatu horiek.

#### **20. printzipioa**

Emakumezkoak funtsezkoak dira ingurumen-antolamenduan eta garapenean. Beraz, nahitaezkoa da emakumezkoen parte-hartzea, garapen iraunkorra lortzeko.

#### **21. printzipioa**

Garapen iraunkorra lortzeko eta guztiontzat etorkizun hobea bermatzeko, munduko aliantza eraiki behar da; eta, horretarako, munduko gazteen sormena, idealak eta balioak oinarri hartuko beharko lirateke.

#### **22. printzipioa**

Herri indigenak eta horien komunitateak –baita bestelako tokiko komunitateak ere– funtsezkoak dira ingurumen-antolamenduan eta garapenean, horien ezagutza eta jardunbide tradizionalak direla eta. Estatuek horien guztien identitatea, kultura eta interesak aintzat hartu beharko lituzkete, horien alde egin beharko lukete eta lagundu beharko liekete eraginkortasunez garapen iraunkorra lortzeko parte har dezaten.

#### **23. printzipioa**

Zapalduta, menderatuta eta okupatuta dauden herrien ingurumena eta baliabide naturalak babestu behar dira.

#### **24. printzipioa**

Gerra, berez, garapen iraunkorraren etsaia da. Beraz, estatuek nazioarteko eskubidea errespetatu behar dute, eta ingurumena babestu behar dute gatazka armatuak indarrean dauden bitartean; gero, ingurumena hobetzen lagundu behar dute, dagokionaren arabera.

#### **25. printzipioa**

Bakea, garapena eta ingurumenaren babesa elkarren mendekoak eta ezin bananduzkoak dira.

#### **26. printzipioa**

Estatuek bide baketsuak erabiliz eta Nazio Batuen Gutunaren arabera konpondu behar dituzte ingurumenari buruzko eztabaida guztiak.

#### **27. printzipioa**

Estatuek eta herriek fede onez eta elkartasunez jardun behar dute Deklarazio honetan emandako printzipioak aplikatzeko eta, gero, garapen iraunkorraren arloan nazioarteko zuzenbidea garatzeko.